




ETA ETORKIZUNA... HEMEN BALITZ?

Eta koronabirusaren krisia eta ezagutarazi duen gure gizartearen ahultasun handia, bultzada erabakigarria izan balitz zangoak berriz lurtean ezartzeko?

Eta etorkizuna 2020an hasi balitz? Eta etorkizuna... hemen balitz?



2020ko maiatzaren 11a




Eta etorkizuna... hemen balitz?

Gure gizartean bat-bateko ahultasun handia ikustea bultzada erabakigarria izan balitz zangoak berriz lurrean ezartzeko? Sistema hau, gure bizitza arriskuan ezarri gabe eta gure babesteko geldi litekeela ustekabeen ikusteak, etorkizuna beste angelu batetik begiratzera eraman bagintu? Globalizazio kapitalistak, bere praktikekin, gizateria osoa mehatxatzen zuela kontzientzia-hartze masiboak konbentzitu bagintu, haren ordezkatzeko, lurralde burujabe, solidario eta iraunkorren mila proiektu abiatzera?

Sentitzen genuen bai, beste krisi batzuk, jatorri anitzekoak, honen ondotik jinen zirela. Koronabirusarena Australiako sute erraldoien ondotik jin zen, eta Ekialdeko Afrikako larrapoten inbasio izigarriaren, baita Europa erdialdeko aparteko idorte baten jarraian ere. Gure azterna ekologiko globalaren

gainditzearen eguna urtero lehenago gertatzen zen, eta desberdintasunek bat-batean gora egin zuten: mundu osoko 2.153 miliardunek munduko biztanleen %60k baino diru gehiago zuten. Ez genuen horrelako garapen eredu jasanezinarekin jarraitzen ahal naturak guri faktura pasa gabe.

Orduan, nola egin buru krisi hauen arrazoiei horien hedadura eta kopurua mugatzeko, eta aldi berean, nola prestatu jadanik eragindako kalteengatik saihetsezinak bilakatuko direnen ondorioei aurre egiteko?




Erantzuna bagenuen, bertan zegoen, gure begien aitzinean. Gizarte zibilak dituen milaka alternatiba enbrioi horien bidez, eta beste politika batzuekin esperimentatzen hasiak ziren tokiko agintarien bidez: horrek, bakoitzari dagokion maila, erresilientziaren eta urritasunaren desafia altxatzeko, eta egokitzapenarena eta arintzearen karta jokatzeko ahala ematen zuen.




Kapitalaren eta lanpostuen kontzentrazioa, energia sistemaren zentralizazioa eta militarizazioa beharrezkoa zuten nuklearra, petrolioia eta ikatza alde batera utzirik; energia aurrezpen masibo, bizikidetzarako urritasun eta energia berriztagarrien garapen politikak abian jarriko genituen. Hauek askoz ere eraginkorragoak eta hobeki onartzen ziren, lurraldeetatik hurbil zirelarik.

Herritarrek eta herriek aiseago berenganatzen zituzten. Eraikinen isolamendu termikoa, salgaien eta pertsonen garraio ezta edo kolektiboa, energia berriztagarrien ekoizpena hobeki egokituak ziren eta eskualde bakoitzeko erliebe, klima eta errealitate geografikoetatik lurralde bakoitzerako material eta baliabide espezifikoetatik ahalik eta hurbilen izan, ahalik eta eraginkorrenak ziren.




Lurralde guzien elikadura burujabetza xedetzat hartzeak, baserrialdeetan arras eraldatu zituen hirigintza politikak, bizitza soziala, baita paisaiak ere. Baserrialdea jendetsuagoa eta erakargarriagoa bilakatu zen, hasteko, laborantza eredu iraunkorrek, agroekologiak, transformazio eta banaketa zirkuitu laburrek beso gehiago eskatzen baitzituzten eta lana lurralde osoan zehar banatzen baitzuten.

Ekonomiaren birtokiratzeak baita birmoldatze eta metamorfosi ekologikoen aldeko politika boluntarioek ere, milioika enplegu sortu zituzten. Horien kalitate nagusietarik bat zen deslokalizazioa ezinezkoa izatea eta lurralde osoan zehar banatzen zirela. Horrek, hirien deskontzentrazioa eta aspaldi jendez husturik egon ziren eremuen birbiziaraztea ekarri zuen. Tokiko



monetak, birtokiratze horren bizkarrezurra zirenak, herritarrek beren esku zituzten hainbat tresnetarik ziren, ekonomia berri hura norabide beti ekologikoago eta solidarioago baten alde bideratzeko. Populazioa erabat prest zen, ekonomia behar zen tokian berriz ezartzeko: gizakien egiazko beharren mende izan behar zuen. Koronabirusak loaldian ezarri zuen garaia aitzin zenaren justu kontrakoa.


Mota berri bateko eredu ekonomiko hura zirkularra zen hein handi batean: konponketa, berrerabilpen, birziklatze, autoekoizpen leku eta aktibitateak biderkatzen zituen, komunitateak eta bertako biztanleak ahal bezain autonomoak bihurtuz.



Osasun politika publikoa askoz hobeki zebilen arrunt deszentralizatu zutenetik. Koronabirusaren krisi handiak, izurriteari lurraldez-lurralde erantzuteko beharra erakutsi zuen, eta horrek ez zuen baztertu, alderantziz, lurralde ezberdinen, kontinenteen arteko elkartasuna.


Prebentzio politikak askoz eraginkorragoak ziren tokiko errealitate bereziei, gizarte ohiturei, kulturei, tokiko elikadura tradizioei egokitzen baitzitzaizkien.

Orokorki, herritarrak askoz osasuntsuagoak ziren munduak neurritasun adiskidetsuaren eta lurralde aniztasunaren hautua egin zuenetik: ez ziren hain sedentarioak, garraio molde aktiboagoei esker, haragi gutxiago eta tokiko elikagai naturalak janean, makrobiota aberastua eta anitza zuten beren baitan, eta ingurumen eta aire sanoagoez gozaten zuten. Aberastasunen eta lanaren partekatze erradikalaren politikak finkatu zirenetik bizimodua ez zen hain



estresagarria eta alienatzailea. Eta herritarrak tokiko demokrazia baten, aisialdien, eta beren besta eta kultura hitzorduen aktore bilakatu zirenetik.

Alabaina, bizitza demokratikoa sakonki birtokiratua izanez, gainera, aberastu eta molde desberdinetan aniztu ere egin zen. Subsidiariorotasun-printzipioak manatzen duen mundu batean, Herrietako Kontseiluek aginpide gehiago eta gaitasun desberdin batzuk eskuratu zituzten. Auzoko kontseiluak sortu genituen. Beren gain hartzen zituzten kudeaketa publikoa, koordinazioa eta animazioa, herritarrengandik ahal bezain hurbil.




Besta batzordeek herri bakar bateko gazteak biltzen zituzten, edo auzo batekoak, baita karrika handi batetakoak ere hiri handietan. Urteko bestak antolatzen zituzten, zenbait egunez segidan iragaten zirenak ekain eta iraila artean, baita jarduera kulturalak eta sozialak ere urteko gainerateko hilabeteetan. Dantzak, kantuak, musikak, antzerkiak, olerkiak, arte plastikoek baita kirol-jarduerek edo gastronomikoek ere osatzen zuten bizitza kultural oparoa, berriz asmatua. Biztanleria



ikusle baino, antzezlea zen, ekoizpen edo elkarrekintza erlazio batekin ari, kontsumo erlazio batekin baino.

Jarduera emendatze izugarria eta hitzordu herrikoi, alai eta neurrigabe asko sorrarazi zituen horrek, urte osoan zehar eta lurralde osoan. Hein handi batean, lehengo irudimen kontsumista eta indibidualista deseraikitzen lagundu zuen, baita elkar-laguntze eta elkartasuna eta loturak hobesten ondasunen ordez.




Etorkinei ongi etorria, adibidez, parada bat bezala bizitzen genuen geroztik, aberaste bat bertako gizataldeentzat, ez eta mehatxu edo menturazko tirabira iturri bat bezala.

Erantzukizunei buru egiteko eta bizitza demokratikoa antolatzen eta animatzen ikasteko oinarrizko maila horietan, milioika herritarrek gazte-gaztetik bizitza publikoan eta ekintza kolektiboan parte hartzen ikasten zuten. Masa-ikaskuntza demokratiko horrek pixkanaka pertsona batzuk prestatzen zituen lurraldeen arteko

eta kontinenteen arteko koordinazio- eta kudeaketa-mailak kudeatzera. Horretarako, ez zen gehiago lehengo klase agintariatetik edo eskola espezializatu eta teknokratiko handietatik jalgi beharrik.

Izan ere, 2020ko osasun-krisiak herritarrak bi jarrera paralelo eta osagarri hartzera eramán zituen. Batetik, modernitate kapitalistaren errorik gabeko kulturarekin hausten ikasi zuten, beren bizi-baldintzen jabetza berreskuratzen, beren lurraldetik ahal bezain hurbil, planeta bere xokorik ttipienez ere babestuz. Bestetik, erabaki zuten populuen arteko etengabeko lehiari uko egitea, orduetik *«gizaki guzien xede-komunitate bat eraikiz, Lur planetaren patu bio-ekologikoarekin lotura bereizezinean»*, Edgar Morinek, salbamenduzko bidebanatzea gertatu zen garaiko filosofoak, adierazi zuten bezala.



Eta etorkizuna 2020an hasi balitz? Eta gutarik bakoitza gaur ureztatzen hasi garen loreak zabaltzen ikusten balitu etorizunak? Eta etorkizuna sortzen balitz, azken hauek loratzen diren gune orotan? Eta etorkizuna... hemen balitz?



Gibelsolasa

Humanismo berriztatuak konplexuago bihurtzen ditu errealismo eta utopia nozioak

Bi errealismo badira. Lehena, presente den erreala egonkorra dela sinestean datza. Ez du kontuan hartzen oraina, beti lurpeko indarrek lantzen dutela, Hegelek aipatzen duen sator zaharrak bezala, trinkoa iduri zuen lurra urratuz azkenean. Errealismo horren ustez, kausitzen den jendarte eta munduaren orden eta antolakuntza, aldaezinak dira. Bernard Groethuysen-ek zioen bezala, egokitze hutsa den errealismoa aipatuz: *“errealista izatea, hau bai utopia”*.


Egiazko errealismoak badaki oraina bilakaeraren une bat dela. Hasieran beti ahulak diren eta eraldaketen berri ematen duten keinuen aurkitzera entseatzen da. Ondorioz, 30. hamarkadako errealismo politikoak kontuan hartu beharko zituen Fermi eta Joliot laborategiek, atomoaren energiaren erabilpenaren posibilitateei buruz igortzen zituzten keinuak. 1972ko errealismoa, Meadows txostenak biosferaren andeatzeari buruz igortzen zuen keinua kontuan hartzea eta egoera horren ondorioak aintzat hartzea zen. Jendartea eraldatze prozesuan delarik, errealismo arruntak ez du nahi eta ezin du eraldaketa honen aldaketa pentsatu ere. Egiazko errealismoa, aldiz, oraina aldatzeko prozesuak erabiltzeko eta aldatzeko aukerak pentsatzen saiatzen da. Egiazko errealismoak proposatzen ahal ditu errealista ofizialentzat utopikoak


iduri duten ideiak. Egiazko errealismoak badaki nekez gerta daitekeena posible dela, eta garrantzitsuena eta usuenik gertatzen dena, ustekabea errealiterata heltzea dela.

Bi errealismo diren gisan, bi utopia badira. Utopia *"txarra"* gatazka eta nahasmendu oro desagerrarazi nahi dituen da, harmonia eta perfektioa gauzatu nahian. Aldiz, ez da deus, perfektua baino hilgarriagorik. Utopia *"ona"* ezin da orainean gauzatu, baina baditu gauzatzeko parada tekniko edo praktikoak: horrela, nazioarte mailako orden bat sortzen ahal genuke lur gainean nazioen arteko bakea finkatzeko, planetako biztanle guzien elikatzeko.

Bada ere nahikunde humanista handia, beti utopiko gisa kontsideratua izan dena eta humanismoak berriz bereganatu behar duena: mundu hobea gauzatzea. Baina azken hau gauzatzen ahal balitz ere, ez litzateke atzera-biderik gabekoa. Ez da itzulbiderik gabeko erdiesterik, ez demokrazia, ez eskubide humanoak. Ez da zibilizazio garaipen behin betikorik. Berriztatzen ez dena endekatzen edo mintzen da. Ondorioz, egiazko errealismoa etengabeko berriztatzea da. Trotskik etengabeko iraultzan sinesten zuen; etengabeko berriztatzea praktikatu behar dugu.

Edgar Morin





Bihar

"Bihar" kantua entzuteko, azpian den QR kodigoa flasa ezazu edo hemen klika ezazu:

soundcloud.com/user-534908115/bihar-jurgi-ekiza-9mai

Zangoak lurrean, besarkadak oraindik faltan.
Ezin da atzera egin, hobe! Erabat galdu ginen han...
Ez genuen mirailan mehatsua ikusi nahi.
Nola utzi bide bat, beste biderik omen ez denean?

Baina kolpe batez, bortxaz den dena gelditu da.
Mundrun ta zementuzko egia pitzatu da.
Zer egingen dugu orain? Zuloak tapatu?
Ala artesi bakoitzean proiektu bat landatu?

Sortu, hazi, hezi,
ikasi, irakatsi,
hautatu, erabaki,
berriz bizi arazi,
konpondu ta trukatu,
jan ta elikatu,
ahal den dena birtokiratu...



Bihar, hementxe bertan da...
Utzazu atzokoa atzean, bihar hementxe bertan da.
Bihar, hementxe bertan da...
Utzazu atzokoa atzean, bihar hemen egiten da.

Energia, kultura, kontsumoa, laborantza ala
ekonomia,
kudeaketa, osasuna ala hezkuntza gure eskura izan
daitezela

Bihar, hementxe bertan da...

Utzazu atzokoa atzean, bihar hementxe bertan da.

Bihar, hementxe bertan da...

Utzazu atzokoa atzean, bihar hemen egiten da.

Hementxe eta oraintxe...

Bihar hementxe bertan da.

Bihar hemen egiten da.

“ETA ETORKIZUNA... HEMEN BALITZ?” TESTUAREN IDAZLEAK:

@Mélanie Grimbinski



Marie Cosnay, autorea eta antzinako testuen itzultzailea, 2020an argitaratu zuen *“If”*, Ogre argitaletxean eta *“Voir venir, écrire l’hospitalité”*, Mathieu Potte-Bonneville-rekin, Stock argitaletxean.



Txetx Etcheverry, klima eta justizia sozialaren aldeko militantea, Euskal Herriaren metamorfosi sozial eta ekologikoaren alde lan egiten duten hainbat egitura eta antolakuntzaren sortzean parte hartu du.

GIBELSOLASAREN IDAZLEA:



Edgar Morin, frantses soziologo eta filosofoa, autorea, hainbat libururen artean *“La Méthode”*, Le Seuil argitaletxean; *“Introduction à la pensée complexe”*, Le Seuil argitaletxean; *“Pour une politique de civilisation”*, Arléa argitaletxean ; *“Les souvenirs viennent à ma rencontre”*, Fayard argitaletxean.

LIBURUXKAREN PRESTATZAILE ETA ILUSTRATZAILEA:



Magali Etcheverria, beregain den grafista eta Biziko militantea Baionan, bere gaitasunak, gogoko dituen kausak defendatzen dituzten erakundeen alde ezartzen ditu.

WWW.ATELIER-ETCETERA.COM

“BIHAR” KANTUAREN HITZEN ETA MUSIKAREN IDAZLEA:



Jurgi Ekiza, euskal kantagintzako kide aktiboa, aldi berean garatzen ditu bere proiektu garrantzitsuenak (*willis drummond* hirukotea eta bakarkako *ekiza* proiektua), bazterreko proiektu bat (*erabatera*), eta hainbat elkarlan. “*Baldin, eta...*” proiektuarentzat sortu den eta konfinamendu garaian 4 egunez osoki etxean egin den *Bihar* kantuaren autore-musikagile-jotzaile-kantaria da.



Bizi! Mugimendua Ipar Euskal Herrian larrialdi klimatikoa eta justizia sozialaren alorrean lanean ari da. Estatu frantsesean Alternatiba mugimendua sortu du eta ANV-COP21aren sortzaile-kidea da. Biziren analisia irakur dezakegu bereziki « *Bihar, 10 000 enplegu klimatiko Ipar Euskal Herrian* » argitalpenean. Bertan aurki dezakegu gure lurraldeen metamorfosi sozial eta ekologikoak lurraldean zehar sortzen ahal dituela kalitatezko enplegu deslokaliza ezinak, edo Biziren « *Klima-Energia tresna kutxa* »-n, jakiteko Herriko Etxeek eta Herri elkargoek ber perspektiban plantan ezar ditzaketen politika alternatiboak zein diren. Edo oraino liburuxka hau inspiratu duen « *Burujahe: Gure bizi baldintzak berreskuratuz* » proiektua.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO EDO BIZIKO BAZKIDE BILAKATZEKO: WWW.BIZIMUGI.EU

Manu Robles-Arangiz Fundazioa Hego Euskal Herrian gehiengoa duen ELA langile sindikatuari lotua zaio. Ipar Euskal Herrian 2005etik presente da, eta bertan formakuntza programa abertzale eta altermundialistak animatzen ditu. Berak dituen hainbat egoitza, elkartasunaren eta ekologiaren alorrean eta Euskal Herri burujabe, zuzen eta jasangarriago baten alde ari diren kolektibo eta egituren esku uzten ditu. Alda taldearekin parte hartzen du Enbata.info hedabidean eta burujabetza sozialaren alorrean, bai eta klase herrikoien defentsa eta auto-antolakuntzaren alorrean.

Liburuxka hau Bizi! eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak elkarlanean argitaratua da. Urririk zabaldua da. Lehen argitalpena 5 000 alekoa da. Osoki herritar suskripzioaren bidez finantzatua da.

Zuen ekarpena, xumea bada ere, interneten bidez egiten ahal duzue, segurtatua den ordainketa moldearekin:

www.helloasso.com/associations/bizi/collectes/et-si

edo Biziren izenean den txeke bat helaraziz honako helbidera:

Bizi, Cordeliers karrika 20, 64100 Baiona

Milesker handi bat aitzinetik!

HARREMANAK: Manu Robles-Arangiz Fundazioa eta Bizi!, Cordeliers karrika 20, 64100 Baiona
Tel: 05 59 59 33 23 / info@bizimugi.eu

